

AECC MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAR ELKARTEAREN PROBINTZIA EGOITZA:

"Postdoctoral AECC 2027"

Helburua:

Laguntza hauen helburua doktoratu ondoko prestakuntza duten ikertzaileak kontratatzea da, ZTBLren 22. artikulua bidez, 4 urteko iraupenarekin.

Laguntzen kofinanziazioa:

Laguntza urtean 46.000€-koa izango da. Deialdi honetako doktore ondoko kontsolidazio kontratu baten zenbatetsiko kostu osoa 52.600€-koa da 2027. urterako, kontuan hartu gabe kontratuaren indarraldian edo pertsonaren antzinatasunean gerta daitezkeen soldata-aldaketak. Beraz, laguntzak estaltzen ez duen kontrataziori dagokion edozein kostu eskabidea bermatzen duen ikerketa-taldeak finantziatu beharko du.

Eskaerak aurkezteko epea:

AECC Fundazioan eskabideak aurkezteko epea **2026ko urriaren 15a** amaituko da, **15:00etan**. Ikerketa-zentroan onartua izan dela egiaztatzen duen gutunean legezko ordezkariaren sinadura lortzeko baterako finantzaketa-inprimakia aurkezteko epea **2026ko urriaren 7an** amaituko da.

EHUn bete beharreko prozedura:

UPV/EHUK kontratuak egingo ditu EHUKo doktorego programetako tesi zuzendariak dituzten onuradunekin, ez beste inorekin. Programa bakoitzari atxikitako irakasleen zerrenda esteka honetan ikus daiteke: <https://www.ehu.es/es/web/doktoregoa>

Ildo beretik, EHUK kontratuak egingo ditu unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin, ez beste inorekin.

EHUri atxikitu nahi duten hautagaiek ikerkuntzaren arloko errektoreordearen sinadura eskatu beharko dute, pre-postdoc.dgi@ehu.es helbidera idatzita **2026ko urriaren 7ra arte**. Horretarako, "ikerketa-zentroan onartua izan dela egiaztatzen duen gutuna" (Fundazioaren txantiloia) bidali beharko da, behar bezala beteta eta eskaera bermatzen duen proiektu-zuzendariaren sinadura elektronikoarekin.

Fundazioarekin harremanetan jartzeko:

Telefona: 900 100 036

Deialdiari buruzko zalantzak: fundacion.cientifica@contrelcancer.es

GMS laguntzak kudeatzeko plataformari buruzko zalantzak: soporteGMS@contrelcancer.es
<https://www.contraelcancer.es/es/area-investigador/ayudas/talento/investigador-aecc-2026>

EHUren kontaktua:

Helbide elektronikoa: pre-postdoc.dgi@ehu.es